

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilbao Ekintza, E.P.E.L.****#BilbaoGabonak2025 ekimenean Gabonetako etxolen adjudikazioa egiteko deialdia.**

Bilbao Ekintza EPELeko presidentek 2025eko irailaren 9ko ebazpenaren bidez onartu du #BilbaoGabonak 2025 ekimenaren baitako Gabonetako etxolak esleitzeko deialdia.

1. Aurkezpena

Bilbao Ekintza EPEL erakundea Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorrera sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzen dituela. Besteak beste, Bilboko merkataritza-sektorearen jarduera ekonomikoa eta dinamizazioa sustatzeko helburua du.

Helburu horrekin Bilboko erakargarritasuna areagotu nahi da. Horretarako, ekintzak koordinatzeko Gabonetako estrategia baten bitartez, hirira etortzeko nahia sortu nahi da, jardueraz gozatzeko, eta nortasun irizpideak kontuan hartuta (aisia, kultura, erosketak...).

Era berean, ekintza erakargarriak sustatuko dira bertako eta inguruko herritarrentzat. Horretarako, Gabonetako giroa duen espazio homogeneoa sortu nahi da, eta aisia, gozamina eta jarduera ekonomikoa sustatuko ditu, betiere euskal nortasunari eutsiz.

Helburua lortzeko diseinatutako ekintza eta programen artean, Bilboko komertzioen jarduerak sustatu nahi dira, hiriko komertzioak hurbiltzen eta erakusten dituzten ekintza eta ekitaldien bitartez.

Bilbao Ekintza EPELek merkataritza-espazioa sortu nahi du, komertzioei eta bertako ekoizleei Gabonetako kontsumorako produktuak eskaintzeko aukera emanez.

Komertzioen eta bertako ekoizleen presentziaren bitartez, sustapenean lagundu nahi da, eta Gabonei lotutako espazio berri bat sortzea ahalbidetu. Komertzioen presentziak nahi den nortasun lokalaren izaera emateko aukera eskainiko dio hiribilduari.

2. Xedea

Oinarri hauek ondoren ezarritakoak erregulatzea dute helburu: Gabonetako Hiriaren barruko Gabonetako Merkatuaren espazioen adjudikazioa, antolaketa eta gauzatzea.

Hau da adjudikazioaren helburua: Bilbao Ekintza EPELek sortutako Gabon Hiria merkataritza-espazioan jarriko diren 6 m² inguruko egurrezko etxola tematizatuak betetzea bertan baimendutako produktuak saltzeko.

Adjudikazioak pertsonalak eta besterenezinak dira eta «prekarioan» emango dira. Horiek Bilbao Ekintza EPEL-en aldebakarreko tolerantzia egintzak baino ez dira, eta horregatik, edozein unetan ezeztatu daitezke, kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik gabe. Adjudikazio horiek ezeztatu daitezke erabiltzeko baldintza orokorrak betetzen ez direnean, kalteak eraginez gero, edo espedientean justifikatu den egoera edozein dela.

3. Lekua eta data

Gabonetako Azoka Casilda Iturrizar parkean horretarako prestatutako espazioetan egingo da, 2025eko abenduaren 5etik 2026ko urtarrilaren 5era bitartean, biak barne, argiztapen arkuaren ondoan.

—Irekiera, abenduaren 5ean, 17:00etatik 22:00etara.

—Abenduaren 5etik 21era:

- Astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 22:00etara.
- Asteburuetan eta jaiegunetan: 11:30etatik 14:30etara eta 17:00etatik 22:00etara.



—Abenduaren 22tik aurrera:

- 11:30etatik 14:30etara eta 17:00etatik 22:00etara.
- Abenduaren 24 eta 31 eta urtarrilaren 5ean: 11:30etatik 14:30etara eta 17:00etatik 19:00etara.
- Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean: Itxita.

4. Etxolen ezaugarriak

Egurrezko hogeita hamabost etxola tematizatu jarriko dira gehienez, eta bakoitzak gutxi gorabehera 6 m²-ko azalera izango du.

Aurrealdean edo alboan irekidura dute, barra eta leiho-ate baskulagarria ere bai; gauean erabateko itxiera ahalbidetzen duen sistema bat ere badute.

Bai teilatuak (bi isurkikoa) bai zoruak beharrezko babesa dute horien barruan ura sartzea ekiditeko.

Argi-puntua dute barruan, beharrezko instalazio elektriko indibidualak, eta elektrizitate-hornidura barruan eta kanpoan izateko aukera ere bai.

5. Parte hartzeko baldintzak

Eskaera aurkezteko aukera izango dute, geroago azalduko den moduan, Bizkaian jarduten dutenek, betiere Bilbokoek izango dute lehentasuna, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Europako Batzordeko 651/2014 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, mikroenpresa edo ETE (enpresa txiki eta ertaina) izatea (I. eranskina).
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman izana, elikagaiei lotutako txikizkako merkataritza-enpresa epigraferen batean: okintza, pastelgintza, opildegia, gozotegia, Gabonetako apaingarriak eta opariak. Artisautzari lotutakoak baztertuko dira.
- Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izatea, eta edozein kasutan, administrazioarekin harreman juridikoa oztopatzen duen gaitasun juridikoa edo jarduteko gaitasuna mugatzen duen arrazoirik ez izatea.
- Salduko diren produktuen araudi erregulatzailearen gaineko baldintzak eta irizpideak betetzea.
- Egunean egotea, bai administrazio publikoekiko dagozkion zerga-betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan. Bilboko Udalarekin duten zerga-egoera Bilbao Ekintza EPELeke egiaztatuko du ofizioz.
- Jarduera estaltzen duen erantzukizun zibileko aseguruia izatea kontratuak irauten duen bitartean.

6. Eskaerak aurkezteko epea, lekua eta modua

Deialdi honen iragarkia Bilbao Ekintza EPELen web-orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, azken hori izanik argitalpen ofiziala, interesdunek eskaria egin dezaten.

Proposamenak aurkezteko dokumentazioa ondoko helbide elektroniko honetara bidali beharko da: comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2025eko urriaren 29ko 13:00ak arte. Ez da onartuko eskaerarik epez kanpo. Dena den, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean aipatutako hasiera-dataren ondoren argitaratzen bada, epea argitaratu ondorengo lehenengo egun baliodunean irekiko da, baina horrek ez du amaitzeko eguna aldatzea eragingo.

Nahi izanez gero, interesdun bik edo gehiagok eskaera batera egiteko aukera izango dute. Kasu horretan, komertzio eskatzaile bakoitzak postuan zenbat denbora igaroko duen zehaztu beharko du.

Guztiak bete beharko dituzte oinarri hauetan eskatutako baldintzak, adjudikazioarekin lotutako betebeharrekin batera, ondore guztietarako eskaera bakarra eginez.



Interesdunek behar bezala betetako eskaera aurkeztuko dute, erantsitako ereduaz azaltzen den moduan (II. eranskina). Era berean, paperezko euskarrian eta euskarri informatikoan (CDa edo DVDa) aurkeztuko ahal izango dituzte produktuen edo artikuluen eskaintzak; alde bakarrean idatzitako 10 orrialdetan, gehienez. Muga horrek A3 eta A4 tamainetako orriak eta dokumentazio grafikoa hartzen ditu barne. Eskaintzaren aurkezpeneak 10 orrialdeko muga gaindituz gero, lehenengo 10 orrialdeak baino ez dira aintzat hartuko.

Eskaera hurrengo dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da:

Nahitaezko dokumentazioa

- Komertzioaren deskripzio-memoria laburra, erantsitako ereduaren arabera, salduko diren produktuak eta horien ezaugarriak adierazita.
- Eskatzailearen NANaren fotokopia edo atzeritarren/enpresen (IFZ edo IFK) kasuan, hori ordezkatzen duen dokumentu ofiziala.
- Alta JEZen, dagokion epigrafean.
- Zerga-ziurtagiriak. Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan egunean egotea, edo alta dagokion Mutuan.

Dokumentazio gehigarria

- Elikadura-produktuak saltzea berekin dakartzaten eskaerek osasun- eta higie-ne-baldintzak bete beharko dituzte, eta, beraz, maneiatzaileek ziurtagiria aurkeztu beharko dute; hau da, elikagaiak maneiatuko dituzten pertsonen higie-ne eta segurtasunean prestakuntza bermatzen duen ziurtagiria. Komertzio eskatzaileak, lehia-ketan adjudikazioa lortuz gero, Osasun eta Kontsumo Sailak ezarritako prozedura jarraitu beharko du, ondoko esteka honetan ezarritakoarekin bat etorriz: https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=BIO_Servicio_FA&cid=1279195938529&language=es&pageid=3000070319&pagename=Bilbaonet%2FBIO_Servicio_FA%2FBIO_Servicio

Eskuz fabrikatutako produktu kosmetikoak saldu nahi dituztenek produktu kosmetikoak fabrikatzeko jardueri buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzian (AEMPS) izapidetua (<https://www.aemps.gob.es/cosmeticosHigiene/cosmeticos/docs/instrucciones-declaracion-responsable-fabricantes-cosmeticos.pdf>), eta horren berri eman beharko dute Produktu Kosmetikoak Jakinarazteko Europako Atarian. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1223/2009 (EE) Erregelamendua, 2009ko azaroaren 30ekoa, produktu kosmetikoei buruzkoa (<https://www.boe.es/doue/2009/342/L00059-00209.pdf>).

Gainera, produktuek arauaren arabera etiketatuta egon beharko dute (produktu kosmetikoei buruzko 1223/2009 Erregelamenduaren 19. artikulua).

7. Adjudikazio-prozedura

Oinarri hauek norgehiagoka bidez iragarriko dira, horien espezifikotasunak kontuan hartuta, eta, modu horretan, interesa duen orok eskaera aurkeztu ahal izango du. Etxolen adjudikazioak oinarri horietan ezarritako irizpideek eskatutakoa kontuan hartuta, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

Eskaera aurkezteak oinarri hauetan agertzen diren atal guztien erabateko onespena adierazten du, eta Bilbao Ekintza EPELe hartutako xedapenekin eta akordioekin ados egotea dakar.

Deialdi honek Bilbao Ekintzako EPELen Enpresa Sustapenerako Arloari atxikitako teknikariak osatzen duten instrukzio organo bat du.

Proposamenak aurkezteko epea bukatzen denean, instrukzio organoak baldintzak betetzen diren egiaztatuko du, eta aurkeztutako eskaeren zerrenda egingo du.



Aurkeztutako eskaeran edo erantsitako dokumentazioan akats materialik aurkituko balitz, interesdunei jakinaraziko zaie, eta akatsak zuzentzeko epea emango da, bost (5) egun baliodunekoa, gehienez.

Horiek horrela, aurkeztutako eskaerak funtsezko akatsik edo hutsunerik badu, eta edozein kasutan, epea bukatzen bada akats horiek zuzendu gabe, ez da eskaera hori onartuko.

Behin-behineko zerrenda Bilbao Ekintza EPELen web-orrian argitaratuko da, eta alegazioak egiteko epea hiru egunekoa izango da. Saltoki bakoitzak eskuratutako puntuazioa argitaratuko da.

Etxolak emateko prozeduraren ebazpen-erabakia arrazoitua izango da, eta postu horiek betetzeko baimendutako pertsonen behin-behineko zerrenda emango du aditzera.

Dirulaguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio. Horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Zuzendaritza Nagusiari.

Baimendutako komertzioek behin-behinean, aldez aurreko errekerimenduz, 600 euroko partaide-kuota ordaindu beharko dute, hamar (10) egun baliodunen buruan, behin-behineko zerrenda argitara ematen denetik kontatzen hasita.

Epea bukatzean eskatzaileak eskatutakoa betetzen ez badu eskaerari uko egiten diola ulertuko da, eta, beraz, zerrendako hurrengo komertzioari emango zaio baimena.

Berdin jardungo da adjudikaziodunen batek etxolari uko egingo balio.

Baimendutako komertzio guztiek behin-behinean ordaintzen badute kuota, aurkeztutako behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da.

Gainera, merkatua ireki baino lehen, merkataritzak aseguru etxearen erantzukizun zibileko polizaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

8. Eskaeren azterketa eta postuen adjudikazioa

Eskaeren instrukzioa eta balorazioa

Akatsak edo ez-egiteak behin zuzenduta, aurkeztutako eta onartutako eskaeren zerrenda argitara emango da, baloratzeko.

Aurkezten diren eskaerak Merkataritza Saileko teknikariek osatutako Balorazio Batzorde batek ebaluatuko ditu.

Produktu-kategoria bakoitzari etxola guztien ehuneko bat egokituko zaio, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Etxolen %20 elikagaiak saltzen dituzten saltokientzat.
- Etxolen %60 oparitzeko gauzak saltzen dituzten saltokientzat.
- Etxolen %20 Gabonetako apaingarriak saltzen dituzten saltokientzat.

Saltokien hautaketa lortutako puntuazioaren menpe egongo da. Gehienez ere 70 puntu lortu ahalko dira, eta prozesutik kanpo geratuko dira 30 puntu lortzen ez dituztenak. Puntuazioak emateko, produktu-kategoria bakoitzeko balorazio-irizpideei jarraituko zaie, honako irizpide hauekin bat etorritik:

- a) Elikadura produktuak saltzen dituzten komertzioak:
 - Produktuen aniztasuna: 30 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala. Eskaintzan aurkezten diren eguneroko produktu motak eta aniztasuna baloratuko dira.
 - Produktu ekologikoak: gehienez ere 20 puntu emango zaizkie beren eskaintzan produktu ekologikoen eguneroko salmenta aurkezten dutenei, eta saltoki eskatzaileek produktu guztien gainean aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala izango da.
 - Elikadura-intolerantzia egokitutako produktuak: gehienez 10 puntu emango zaizkie beren eskaintzan elikadura-intolerantzia egokitutako produktuen eguneroko salmenta aurkezten dutenei, eta saltoki eskatzaileek produktu guztien gainean aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala izango da.



- Saltokiaren kokalekua: 10 puntu emango dira saltokia Bilbon kokatuta badago. Bilbon kokatutako saltokitza hartzen da Bilbon lokal fisikoa duena edo, Internet bidez saltzen badu, helbide fiskala Bilbon duena.
- b) Oparitzeko gauzak saltzen dituzten komertzioak:
 - Produktuen aniztasuna: 30 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala. Eskaintzan aurkeztu diren eguneroko artikulua motak eta aniztasuna baloratuko dira.
 - Produktuen originaltasuna eta kalitatea: 30 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala.
 - Saltokiaren kokalekua: 10 puntu emango dira saltokia Bilbon kokatuta badago. Bilbon kokatutako saltokitza hartzen da Bilbon lokal fisikoa duena edo, Internet bidez saltzen badu, helbide fiskala Bilbon duena.
- c) Gabonetako artikulua saltzen dituzten komertzioak (Gabonetako apaingarriak, jaiotzak, Christmasak eta txantxetarako gauzak):
 - Produktuen aniztasuna: 30 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala. Eskaintzan aurkeztu diren eguneroko artikulua motak eta aniztasuna baloratuko dira.
 - Produktuen originaltasuna eta kalitatea: 30 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala.
 - Saltokiaren kokalekua: 10 puntu emango dira saltokia Bilbon kokatuta badago.

Bilbon kokatutako saltokitza hartzen da Bilbon lokal fisikoa duena edo, Internet bidez saltzen badu, helbide fiskala Bilbon duena.

Jarritako etxola guztietatik, gutxienez bost esleituiko zaizkie ekonomia sozial eta solidariora bideratutako saltokiei.

Ekonomia sozial eta solidarioko saltokiak dira helburu nagusitzat onura ekonomikoa maximizatzea ez duten erakundeak, premia kolektiboak eta gizarte-ongizatea asetzea baizik, eta komunitatean eta ingurunean eragin positiboa bilatzen dutenak.

Ekonomia sozial eta solidarioko saltokiek lehen deskribatutako hiru produktu-kategorietako batzuetan kokatuta egon beharko dute (elikadura-produktuak, opariak edo Gabonetako artikulua), eta eskatzen den gutxienerako puntuazioa lortu beharko dute.

Ekonomia sozial eta solidarioko 5 saltokiren kupoa bete ondoren, horrelako saltokien eskaera gehigarriak egonez gero, kupo orokorrean sartuko dira.

Produktuen edo artikuluen hiru kategorietako etxolen bat bete gabe geratzen baldin bada, antolatzaileek postua beste kategorietako eskatzaileei adjudikatuko diote, zerrendaren ordenari jarraikiz. Era berean, ekonomia sozial eta solidarioko 5 saltokiren kupoa osatzen ez bada, gerakina kupo orokorrean sartuko da.

Azkenean berdinketa gertatuko balitz, eskaeren ordena da kontuan hartuko den irizpidea. Ondore horietarako, egindako akatsak zuzenduz gero, eskaera lehenengo aldiz egindako data joko da sarrera-datatzat, oinarri hauetan eskatutakoari jarraikiz.

9. Baimendutako komertzioen betebeharrak

Baimenak pertsonalak eta eskualdaezinak dira, oinarri hauetan eskatutako irizpideak bereziki betetzen direnean baino ez delako baimenik ematen. Horregatik, postua beteko dute bakarrik baimenaren titularrak edo eskaeran aipatutako horren ordezkioak.

Baimendutako komertzioak agindutako muntaketa- eta desmuntaketa-ordutegietara egokitu beharko dira, eta, horretarako egunak abenduaren 3a eta 4a eta urtarrilaren 6a, 7a eta 8a izango dira, hurrenez hurren.

Etxolak 2025eko abenduaren 5etik 2026ko urtarrilaren 5era egon beharko dira zabalik, egun hauetan izan ezik: abenduak 25 eta urtarrilak 1. Etxolaren titularrak ordutegia bete beharko du, eta etxola ezin izango du bakarrik utzi, arrazoi justifikaturik izan ezean. Horrelakorik gertatzekotan, aurrez jakinarazi beharko du.



Etxolek ezin izango dute itxi bi egunez baino gehiagoz, justifikaziorik gabe, eta Bilbao Ekintza EPELeko Merkataritza Arloko arduradunari jakinarazi gabe. Bestela, baimena errebotatu eta ondorerik gabe utziko da.

Etxola guztiek izango dituzte kartelak euskaraz eta gaztelaniaz.

Baimendutako guztiek oinarri horiek guztiz bete beharko dituzte, araudi orokorrarekin eta saltzen duten produktuari dagokionarekin batera. Ez da onartuko eskaeran aurkeztu ez den produkturik saltzerik, salmentarako artikuluen kalitatea, osaera eta prezioa partaidearen ardura izanik.

Merkatariak arauak betetzen ez baditu antolatzaileek jakinaraziko diote, eta egokitzen jotzen duten edozein zigor jar diezaiokete; etxola ixtea edo hurrengo edizioetan parte hartzea ukatzea ekar dezake.

Debekatuta dago publizitatea, propaganda, kartelak eta abar jartzea. Horrez gain, postuetan megafonia indibidualuz musika partikularra jartzea ere debekatuta dago.

Etxolek behar bezala egokituta egon beharko dute jendearentzat zabalik dagoen ordutegian. Postuen garbiketa partaide diren komertzioen ardura izango da, erabilitako espazioa hondakinez libre uztea haien betebeharra izango baita, eta beharrezko neurriak hartuko dituzte bidea eta espazio libre publikoak ez zikintzeko.

Merkatuko ordutegian etxolaren ardura hartzea eta bertan saltzen diren produktuen segurtasuna bermatzea.

Partaideek eskuragarri izango dituzten udal instalazioen erabilera egokia eta zuzena egin beharko dute, eta horiek jarduera hasi baino lehen zeuden moduan utzi beharko dituzte.

Adjudikaziodunek ezin izango diote Bilbao Ekintza EPELi Gabonetako Merkatuan zehar izandako eguraldi txarraren ondoriozko kalte-ordainik eskatu.

Jarduerak baimendutakoen kontura burutuko dira. Bilbao Ekintza EPELe ez du jarduerak irauten duen bitartean gerta daitezkeen galtzeen edo lapurreten ardura hartuko.

Postuek erreklamazio-orri ofizialak izango dituzte kontsumitzaileentzat eskuragarri, kartel eredu ofizialaren bidez aurkeztu beharrekoak.

10. Erakundearen betebeharrak

Bilbao Ekintza EPEL erakundea Gabonetako Merkatuaren antolatzaile modura, honako hauek arduratuko da:

- Etxola baimenduetan korrante- eta argiztapen-hartuneak baimendutakoen eskura jartzea, eta Bilbao Ekintza EPELen kontura izango da horien kontsumo elektrikoa, bai eta beren produktuak egiteko behar duten ur-kontsumoa ere.
- Komertzioentzako etxolen adjudikazioa eta banaketa egingo da, eta postu bakoitzeko kartel identifikagarria jarri beharko da: Bilbao Ekintza EPELe erabakiko du adjudikaziodunen etxolen kokalekua. Horretarako, etxola bakoitzean eskainiko diren artikuluen ezaugarriei buruzko dokumentazioa hartuko da kontuan.
Bilbao Ekintzak berarentzat gordetzen du produktu berdina edo ekintza bera eskaintzen duten etxola kopurua murrizteko eskubidea.
- Merkatura seinaleztatzea, parte hartzen duten saltokiak, datak eta ordutegiak adierazita.
- Etxolak eta ingurua Gabonetako motiboz apaintzea eta musika jartzeko megafonia-sistema izatea.
- Paperontziak edo edukiontzi komunak jartzea.
- Ordutegi komertzialaz kanpoko zaintza kontratatzea.
- Ekitaldiaren zabalkundea: Erakundeak berarentzat gordetzen du argazkiak ateratzeko edo standetan erakusten diren produktuak filmatzeko eskubidea eta erreproduzioak publikazio eta promozio ofizialetan erabiltzeko eskubidea.



Bilbao Ekintzak berarentzat gordetzen du oinarri hauek interpretatzeko eskubidea, zalantza sor dezaketen edozein egoeratan, datak, ordutegiak eta aurreikusitako postuen banaketa aldatzeko, komenigarritzat jotzen duenean. Hartutako erabakiak behin betikoak izango dira.

11. Datu pertsonalen babesa

Atal honetan, «ETEak eta Merkataritza» tratamenduaren jarduerari buruzko oinarriko informazioa eskaintzen da.

Tratamenduaren arduraduna

Bilbao Ekintza EPEL
IFK: Q-4800731D.
Helbidea: Nafarroa kalea, 5, 48001-Bilbo.
Webgunea: www.bilbaoekintza.eus
Telefonoa: 944 205 300.

Xedea

Bilborako definitutako sektore estrategikoetako enpresa fisiko eta juridikoei zuzendutako zerbitzuak, aberastasuna eta enplegua sortzen dutenak, beren kapitala eta posizionamendua etengabe hobetzen laguntzen dutenak eta lankidetzaren bidez proiektu berritzaileak sustatzen dituztenak.

Bilbao Ekintza EPEL udal-entitateak garatutako ekintzek interes publiko nabarmena dutenez eta Bilboko herritar guztientzat onuragarriak direnez, erabiltzaileei beren interesekoak izan daitezkeen jarduketara eta zerbitzuen berri eman diezaiekegu, baita entitateak ekonomia-garapenaren eta enpleguaren arloan dituen udal-eskumenekin zerikusia duten ekintza eta zerbitzuen berri eman ere.

Tratamenduaren zilegitasuna

DBAE: 6.1.a) Interesdunaren baimena.

DBAE: 6.1.e) Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botereak baliatuz zeregin bat betetzeko.

Pertsonak/Entitate jasotzaileak/Nazioarteko transferentziak

Ez da aurreikusten datu pertsonalak lagatzea. Ez da aurreikusten datuen nazioarteko transferentziarik.

Eskubideak baliatzea

Hauexek dira interesdunen eskubideak:

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko edo tratamenduaren aurka agertzeko eskubidea, tratamenduaren arduradunaren helbidera idatzi bat bidaliz, nortasuna aldeztu aurretik egiaztatuta.
- Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea

Informazio osagarria

Bilbao Ekintza EPELek egiten duen datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan datos@bilbao.eus helbide elektronikoaren bidez eta eskatu datu pertsonalen tratamendu honi buruzko informazio gehiago.

Bilbon, 2025eko urriaren 7an.—Bilbao Ekintzako Presidentea

**I. ERANSKINA****ETEn definizioa**

Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera (erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz):

1. artikulua. — Enpresa

Enpresatzat hartuko da jarduera ekonomiko bat egiten duen erakunde oro, bere forma juridikoa edozein dela ere. Zehazki, enpresatzat hartuko dira artisau-jarduera bat edo beste jarduera batzuk banaka edo familian egiten dituzten erakundeak, bai eta pertsonen sozietateak eta jarduera ekonomiko erregular bat egiten duten elkarteak ere.

2. artikulua. — Enpresa-kategoriak definitzen dituzten finantza-efektiboak eta -mugak

1. Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) kategoria 250 langile baino gutxiago dituzten eta urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez duten edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez duten enpresek osatzen dute.

2. ETEen kategorian, enpresa txiki bat da 50 langile baino gutxiago dituen enpresa, zeinaren urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra ez den 10 milioi eurotik gorakoa.

3. ETEen kategorian, mikroenpresa bat da 10 langile baino gutxiago dituen enpresa, zeinaren urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra ez den 2 milioi eurotik gorakoa.

**2. ERANSKINA**

ESKAERA BILBOKO 2025EKO GABONETAKO MERKATUAN PARTE HARTZEA	Sarrera-erregistroa
---	---------------------

Erakunde eskatzailearen datuak

Titularraren izen-abizenak		IFZ	
Baimendutakoaren izen-abizenak		IFZ	
Merkataritza izena			
Helbide soziala			
Udalerrria		Probintzia	
Telefono zenbakia			
Helbide elektronikoa			

Nik jaunak /andreak NAN zenbakia duenak, eskabide honetan jasotako erakunde eskatzailearen izenean eta ordezkartzan,

HAUXE AZALTZEN DUT:

2025eko(a)ren(e)ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dela Bilboko Gaboneta-ko Merkatuan parte hartzeko deialdia, eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen ditudala.

HAUXE ESKATZEN DUT:

deialdian onartua izatea. Horretarako ondoko administrazio-agiriak erantsi dira:

- ☐ Eskatzailearen eta baimendutako pertsonaren (halakorik baldin badago) NANA.
- ☐ EJZn alta.
- ☐ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.



ESKAERA
BILBOKO 2025EKO GABONETAKO MERKATUAN PARTE HARTZEA

Sarrera-erregistroa

Komertzioaren ezaugarrien deskribapen laburra

Interesdunek paperezko euskarrian eta euskarri informatikoan (CDa DVDa) aurkeztuko dute beren produktuen eskaintza, alde bakarrean idatzitako 10 orrialdetan, gehienez. Muga horrek A3 eta A4 tamainetako orriak eta dokumentazio grafikoa hartzen ditu barne. Eskaintzaren aurkezpenak 10 orrialdeko muga gaindituz gero, lehenengo 10 orrialdeak baino ez dira aintzat hartuko.

Bilbon, 2025eko(a)ren(e)(a)n.
Sin.: Legezko Ordezkaria



TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Bilbao Ekintza EPEL IFK: Q-4800731D. Helbidea: Nafarroa kalea, 5, 48001-Bilbo. Webgunea: www.bilbaoekintza.eus Telefonoa: 944 205 300.
Xedea	Bilborako definitutako sektore estrategikoetako enpresa fisiko eta juridikoei zuzendutako zerbitzuak, aberastasuna eta enplegua sortzen dutenak, beren kapitala eta posizionamendua etengabe hobetzen laguntzen dutenak eta lankidetzaren bidez proiektu berri-tzaileak sustatzen dituztenak. Bilbao Ekintza EPEL udal-entitateak garatutako ekintzek interes publiko nabarmena dutenez eta Bilboko herritar guztientzat onuragarriak direnez, erabiltzaileei beren interese-koak izan daitezkeen jarduketa eta zerbitzuen berri eman diezaiekegu, baita entitateak ekonomia-garapenaren eta enpleguaren arloan dituen udal-eskumenekin zerikusia du-ten ekintza eta zerbitzuen berri eman ere.
Tratamendua legitimatzea	DBAE: 6.1.a) Interesdunaren baimena DBAE: 6.1.e) Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamendua-ren arduradunari emandako botereak baliatuz zeregin bat betetzeko.
Pertsonak/Entitate jasotzaileak/ Nazioarteko transferentzia	Ez da aurreikusten datu pertsonalak lagatzea. Ez da egingo datuen nazioarteko transferentziarik.
Eskubideak baliatzea	Hauexek dira interesdunen eskubideak: 1. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko edo tratamenduaren aurka agertzeko eskubidea, tratamenduaren arduradunaren helbidera idatzi bat bi-daliz, nortasuna aldeztu aurretik egiaztatuta. 2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea
Informazio gehigarria	Bilbao Ekintza EPELek egiten duen datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan datos@bilbao.eus helbide elektronikoaren bidez eta eskatu datu pertsonalen tratamendu honi buruzko informazio gehiago.